

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onestea Amurrioko udalerrian, prestakuntza beken bidez, enplegua sustatzeko dirulaguntzak ematea arautzen dituen ordenantza

Udalbatzak, 2023ko apirilaren 27ko osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion Amurrioko udalerrian, prestakuntza beken bidez, enplegua sustatzeko dirulaguntzak ematea arautzen dituen ordenantzari (2023/S04.11.00.04/1 espediente). Iragarki hori 2023ko maiatzaren 12ko ALHAOn (55. zk.) argitaratu zen. Haren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea bukatuta, erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, erabaki hori behin betiko bihurtzen da, hala xedatzen baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49. artikuluan. Horrela, bada, 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, jendaurrean jartzen da eta, horretarako, ordenantzaren testu osoa argitaratzen da. Zerga ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Hona hemen zerga ordenantzaren testua hitzez hitz:

“LANGABEENTZAKO PRESTAKUNTZA BEKEN UDAL PROGRAMA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA”

Amurrioko Udalak praktika programa bat jarri du abian, enplegua sustatzeko eta langabeak enpresekin harremanetan jartzeko. Programa horrek laguntza ekonomiko batzuk ditu esleituta bertan parte hartzen dutenentzat; horregatik, Amurrioko Udalak honako ordenantza hau onetsi behar du, zeina honako oinarri hauek arautuko baitute:

1. Xedea eta aplikazio eremua: oinarri hauen xedea da Amurrioko bizirik diren langabeek enpresetan zerbitzuak emateko 8 beka emateko baldintzak arautzea. Itzuli beharrik gabeko laguntza ekonomikoa izango da beka.

2. Beken zenbatekoa eta iraupena: bekaren zenbatekoa hilean zortziehun eta hogeita hamar euro gordin izango da, dagokion PFEZren atxikipena barne.

Lanekoak ez diren enpresa praktikak kudeatzeko, horien jarraipena egiteko eta horiek ebaluatzeko Lanbideko zuzendari nagusiaren jarraibideak aplikatuz (1543/2011 ED eta 1493/2011 ED), enpresak Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean kotizatuko du praktiketako pertsona horienentzat, kotizazio kontuaren berariazko kode batean. Kotizazio horien ondoriozko gastuak praktikak egiten diren enpresak ordainduko ditu.

Enpresetan praktikak egin ahal izateko, jarraibide hauetako bati heldu behar zaio:

1) Lanbideko zuzendari nagusiaren jarraibideak, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak baimendutako prestakuntza programetan beken bidez parte hartzen duten langabetuek enpresetan egiten dituzten eta lanekoak ez diren praktikak kudeatzeko, horien jarraipena egiteko, eta horiek kontrolatu eta ebaluatzeko, urriaren 24ko 1493/2011 Errege Dekretuaren esparruan.

2) Lanbideko zuzendari nagusiaren jarraibideak, gazteek enpresetan egiten dituzten eta lanekoak ez diren praktikak kudeatzeko, horien jarraipena egiteko, eta horiek kontrolatu eta ebaluatzeko, 1543/2011 Errege Dekretuaren esparruan.

Amurrioko Udalak programa hau gauzatu eta finantzatzeko interesa duenez gero, bekaren zenbatekoa enpresei ordainduko zaie, haiek hileroko dagozkien kopuruak ordain diezazkieten bekadunei, eta, horretarako, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte aurrez: IFZ, hirugarrenen alta eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga eginbeharrak egunean dituztela egiaztatzen duten agiriak.

Bekak sei hilabete iraungo du, eta beken deialdiari dagokion ekitaldia amaitu baino lehen hasi beharko da. Bekaren esleipendunak 30 orduko arduraldia izango du astean, enpresen beharren eta udalak zehaztutako ildoen arabera banatuta.

Bekadunak praktikak egingo dituen enpresaren edo enpresen beharrak direla eta beharrezkoa bada, bekadunak 6 hilabete baino gutxiago igaro ahalko ditu enpresan eta astean 30 ordutik gorako arduraldia izan, baldin eta guztira, gutxienez, 720 ordu lan egiten baditu. Nolanahi ere, ezin izango dira astean 40 ordu baino gehiago egin, ezta gaueko ordutegian lan egin ere.

3. Onuradunen betekizunak: deialdia egingo da eta bekak norgehiagoka bidez emango zaizkie eskatzen duten pertsoneri, baldin eta betekizun hauek betetzen badituzte eskaera aurkezteko epea amaitu baino lehen eta agiri bidez egiaztatzen badituzte:

A) 1493/2011 DEKRETUAREN ESPARRUAN LANBIDEK EMANDAKO JARRAIBIDEEN MENDEKO BEKAK.

- a) Amurrioko udalerrian erroldatuta egotea.
- b) Amurrio Bidean erakundeak EAeko 2021-2027 aldirako Programa Operatiboaren esparruan antolatutako prestakuntza programa batean parte hartzen aritzea.
- c) Ez izatea helburu bera edo antzekoa duen beste beka edo laguntza bat.
- d) Bekak iraun bitartean ez egitea lan jarduera ordaindurik.
- e) Praktikak egingo dituen enpresan edo talde bereko beste edozeinetan 3 hilabete baino gehiago lan egin ez izana.
- f) Langabezian eta Lanbiden enplegu eskatzaile gisa izena emanda egotea.

B) 1543/2011 DEKRETUAREN ESPARRUAN LANBIDEK EMANDAKO JARRAIBIDEEN MENDEKO BEKAK.

- a) Amurrioko udalerrian erroldatuta egotea.
- b) Graduak unibertsitate ikasketak, goi mailako edo erdi mailako heziketa zikloa edo horren maila bereko Lanbide Heziketako edo arte edo kirol irakaskuntzako titulazioa amaitu izana, edo profesionaltasun ziurtagiri bat eskuratu izana.
- c) Ez izatea helburu bera edo antzekoa duen beste beka edo laguntza bat.
- d) Ez izatea hiru hilabetetik gorako lan harremanik edo bestelako lanbide esperientziarik jarduera berean. Ez dira kontuan hartuko dagozkien tituluak edo ziurtagiriak lortzeko curriculumetako praktikak.
- e) Bekak iraun bitartean ez egitea lan jarduera ordaindurik.
- f) 25 urte beteta ez izatea bekaren hasieran, edo, Gazte Bermea Sistemaren Fitxategi Nazionalen izena emanda dauden pertsonen kasuan, 30 urte beteta ez izatea.
- g) Langabezian eta Lanbiden enplegu eskatzaile gisa izena emanda egotea.

4. Eskaerak aurkeztea: Amurrioko udal erregistro orokorrean (Juan Urrutia plaza, z.g.) aurkeztu behar dira eskaerak eta nahitaezko agiriak. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatutakoa aplikatuko da.

Deialdia argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eskaerak aurkezteko epea eta 15 egun geroago bukatuko da.

Eskaerak oinarri hauetako I. eranskinetako eskaera orrian aurkeztu behar dira. Eskaerarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

- a) NANaren fotokopia edo egiaztatagiri baliokidea.

b) Graduko unibertsitate ikasketak, goi mailako edo erdi mailako heziketa zikloa edo horren maila bereko Lanbide Heziketako edo arte edo kirol irakaskuntzako titulazioa amaitu izana, edo profesionaltasun ziurtagiri bat eskuratu izana, egiaztatzen duen agiria, 25 urtetik beherako gazteentzako beketarako, edo 30 urtetik beherakoentzako beketarako, Gazte Bermearen Sistema Nazionalaren fitxategian inskribatuta daudenen kasuan.

c) Lanbideren jarraibidearen mendeko langabeentzako beketarako, Amurrio Bidean erakundeak emandako ziurtagiria, egiaztatzen duena beka hauen deialdiaren urtean parte hartzen ari dela edo parte hartu duela erakunde horrek EAEko 2021-2027 aldirako Programa Operatiboaren esparruan antolatutako prestakuntza ekintzan.

d) Erantzukizunpeko adierazpena, adierazten duena ez dagoela Dirulaguntzen Lege Orokorren 13. artikulua araberako pertsona onuraduna izatea eragozten duten inguruabarretan. II. eranskinean jasotako eredia erabili behar da.

e) Balioetsi litezkeen merituak egiaztatzen dituzten agirien kopia erkatua.

f) Lanbide egindako ziurtagiria, izena emanda egon den aldiei buruzkoa eta, era berean, lan egoera adierazten duena.

g) Lan bizitza.

Interesa dutenek eskaera aurkezteak berekin dakar oinarri hauen edukia onartzea.

5. Eskabideak balioestea: eskaerarekin batera egiaztatutako merezimenduak baino ez dira balioetsiko. Deialdi honetan honako merezimendu hauek barematuko dira:

A) 1493/2011 DEKRETUAREN ESPARRUAN LANBIDEK EMANDAKO JARRAIBIDEEN MENDEKO BEKAK.

a) Titulazioa (gehienez 2 puntu).

2 puntu emango zaizkio honako tituluen lizentzia edo gradua duen izangaiari: Zuzenbidea, Enpresa Zientziak, Ekonomia Zientziak, Ingeniaritza, Arte Ederrak, Marketina, Arkitektura, Gizarte eta Komunikazio Zientziak, Psikologia.

Gainerako gradu, diplomatura eta lizentziei 1,5 puntu emango zaie.

Goi mailako prestakuntza zikloei puntu 1 emango zaie.

Erdi mailako prestakuntza zikloei 0,25 puntu emango zaie.

b) Langabezian emandako denbora (gehienez puntu 1).

Puntu 1, langabezian urtebete baino gehiago daramaten pertsonentzat.

0,5 puntu, langabezian sei hilabete baino gehiago daramaten pertsonentzat.

c) Adina (gehienez 2 puntu).

1980ko urtarrilaren 1a baino lehen jaioak: 2 puntu.

1980ko urtarrilaren 1aren ondoren jaioak: 1 puntu.

d) Beste merezimendu batzuk (gehienez 5 puntu).

500 orduetik gorako masterra edo ikastaroak: 2 puntu.

Beste ikastaro batzuk (orduen batura: 0,004 puntu/ordu): gehienez 2 puntu.

EGA: 2 puntu.

Beste hizkuntza batzuk (ingelesa, frantsesa, alemana) (gehienez 2 puntu).

First edo baliokidea: 0,5 puntu.

Advance edo baliokidea: puntu 1.

Gidabaimena: 0,5 puntu.

B) 1543/2011 DEKREUAREN ESPARRUAN LANBIDEK EMANDAKO JARRAIBIDEEN MENDEKO BEKAK.

a) Titulazioa (gehienez 2 puntu).

Gradua duen izangaiari 2 puntu emango zaizkio.

Goi mailako prestakuntza zikloren bat duen izangaiari puntu 1 emango zaio, erdi mailako prestakuntza zikloren bat duenari puntu 1, eta 0,5 puntu profesionaltasun ziurtagiriren bat duenari.

b) Adina (gehienez 2 puntu).

2001eko urtarrilaren 1a baino lehen jaioak: 2 puntu.

2001eko urtarrilaren 1aren ondoren jaioak: 1 puntu.

c) Azken enplegutik igarotako denbora (gehienez puntu 1).

Puntu 1, langabezian urtebete baino gehiago daramaten pertsonentzat.

0,5 puntu, langabezian sei hilabete baino gehiago daramaten pertsonentzat.

d) Beste merezimendu batzuk (gehienez 6 puntu).

500 ordutik gorako masterra edo ikastaroak: 2 puntu.

Beste ikastaro batzuk (orduen batura: 0.004 puntu/ordu): gehienez 2 puntu.

EGA: 2 puntu.

Beste hizkuntza batzuk (ingelesa, frantsesa, alemana): (gehienez 2 puntu).

First edo baliokidea: 0,5 puntu.

Advance edo baliokidea: puntu 1.

Gidabaimena: 0,5 puntu.

Puntuen berdinketa egonez gero, lehentasuna izango du ondorengo ataletan puntuazio onena lortu duenak: lehenik, b atalean; bigarrenik, c atalean. Hala eta guztiz ere berdinketa badago, zozketa bidez ebaztuko da.

6. Balioespen batzordea, beka ematea eta jarraipena egitea: beka eskuratu nahi duten izangaiak balioesteko, balioespen batzorde bat eratuko da, aurkeztutako eskaerak aztertzeaz eta balioesteaz arduratuko dena. Batzordea honako hauek osatuko dute: Ekonomia Sustapenerako Saileko teknikaria, Amurrio Bidean toki garapenerako sozietateko enpresak sortzeko teknikaria eta Amurrio Bidean sozietateko enpresei laguntzeko teknikaria.

Balioespen batzordeak eskumena izango du, bere kideen bidez, adierazitako meritua hobeto kalifikatzeko beharrezko irizitako nahi adina egiaztapen egiteko, bai eta egindako hautaketa prozesuaren ondorioz sortzen diren gorabeherak ebazteko ere.

Ekonomia sustapenerako teknikariak beka emateko edo ukatzeko proposamena egingo dio Tokiko Gobernu Batzarrari, hautaketa eta jarraipen batzordearen txostenean oinarrituta, aurrekontu esleipenari eta alde zuzeneko fiskalizazioari buruzko txostenaren ondoren.

7. Bekadunen eskubideak eta betebeharrak:

1. Beka hau ez da bateragarria Espainiako edo Europar Batasuneko funts publiko edo pribatuekin finantzatuta dauden eta helburu bera edo antzekoa duten beste beka edo laguntza batzuekin.

2. Bekaduna izateak ez du inoiz sortuko lan edo administrazio harremanik Amurrioko Udalarekin, ezta bekadunak praktikak egiten dituen enpresekin ere.

3. Beken titularrek betebeharrak hauek izango dituzte:
- EAEko 2021-2027 aldirako Programa Operatiboko prestakuntza ekintzaren ordu guztien ehuneko 80ra joatea, gutxienez, A motako beken kasuan.
 - Esleitutako enpresara joatea adostutako egunetan.
 - Programako jarduerak egin eta ezarritako helburuak betetzea.
4. Ukorik edo bajarik izanez gero, Amurrioko Udalak beste eskatzaile batzuei esleituko die beka, hautaketa prozesuan lortutako hurrenkerari jarraituz. Bekaren iraunaldia hilabete naturala baino laburragoa bada, onuradunak egindako denboraren arabera dagokion zenbatekoa jasoko du.
8. Aurrekontu erabilgarria: oinarri hauetan araututako dirulaguntzak "Prestakuntza beka" izeneko 23.1.23.1.24116.480 partidaren kontura finantzatu dira, horretarako deialdia egin ondoren. Aurrekontuaren ehuneko 50 bideratuko da dirulaguntza lerro bakoitzera. Hori gorabehera, aurrekontu ekitaldi batean dirulaguntza lerro bakar baterako deialdia egiten bada, zenbateko osoa erabili ahal izango da lerro horretako beka finantzatzeko. Nolanahi ere, iragartzen den beka motarako zenbatekoa ezarri beharko da deialdietan. Lerro bakoitzaren deialdiaren eta ebazpenaren ondoren gauzatu gabeko aurrekontu krediturik badago, beste dirulaguntza lerroko beka finantzatzeko erabili ahal izango da.
9. Laguntza ordaintzea: laguntza ekonomikoa sei ordainketatan ordainduko da, prestakuntza praktikak irauten duen hilabeteetan.
10. Laguntza itzultzea: dirulaguntza eman zuen organoak izango du eskumena espediente hasi eta, hala iritziz gero, onuradunak dirua itzuli behar duela ebazteko. Prozedura ofizios edo organo eskudunak edo interesdunak berak eskatuta hasi ahal izango da. Horren inguruko ebazpena hartu ondoren, udalak laguntzaren onuradunari jakinaraziko dio dirua itzultzeko prozedura hasi dela, bai eta horren arrazoiak ere, eta hamabost egun emango zaizkio bidezko deritzen alegazioak egin eta egoki jotzen dituen agiriak eta justifikazioak aurkezteko.
- Alegazioak jasotakoan edo hartarako emandako epea igaro eta alegaziorik aurkeztu ez bada, ebazpen arrazoitua emango da, non ebatzitakoaren aurka zer errekurtso aurkez daitezkeen adieraziko baita. Hamabi hilabete izango dira, gehienez, dirua itzultzeko prozedura ebazteko. Ebazpenak baldintzak ez direla bete ebazten bada, dirulaguntza jasotzeko eskubidearen galera ekarriko du, bai eta, ondorioz, bidegabe jasotako zenbatekoak udal diruzaintzara itzultzeko beharra ere. Horretarako, bi hilabete izango dira jakinarazpena jasotzen denetik aurrera. Epe horretan ordainduz gero, borondatezko epean ordaindu dela joko da. Epe horretan ordaintzen ez bada, premiamendu bidea abiatuko da, aplikatzekoa den araudiarekin bat etorritik. Dirua itzultzeko prozedura arau hauste administratibo baten ondorio bada, organo eskudunari jakinaraziko zaio, aplikatzekoa den zehapen prozedura abia dezan.
11. Araubide osagarria: oinarri hauetan jaso ez den guztian Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta haren garapen araudia eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea aplikatuko dira.
12. Indarrean jartzea: ordenantza hau indarrean jarriko da testua ALHAOn osorik argitaratu eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan adierazitako epea igarotzen denean.

Amurrio, 2023ko ekainaren 29a

Alkatea

JOSE RAMÓN MOLINUEVO LAÑA

I. eranskina. Prestakuntza bekaren eskaera – A mota

..... jaunak/andreak,
adinez nagusia eta(e)ko herritarra denak (helbidea:
.....posta kodea,kalea, zenbakia, solairua),
eta telefono zenbakia NAN zenbakia dituenak,

Adierazten du

Badakiela udal honek deialdia egin duela prestakuntza bekak emateko Amurrion bizi diren langabetuei, eta, oinarrietan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela iritzita, beka horiek esleitzeko hautaketa prozesuan parte hartu nahi duela. Horrenbestez, honako agiri hauek eranstean ditu:

a) NANaren fotokopia edo egiaztagiri baliokidea.

b) Lizentziatura/diplomatura/gradua/goi mailako edo erdi mailako prestakuntza zikloa edo profesionaltasun ziurtagiria egin izanaren egiaztagiria.

c) Amurrio Bidean erakundeak emandako ziurtagiria, Euskal Autonomia Erkidegoko 2021-2027 aldirako Programa Operatiboaren barruan erakunde horrek beka hauen deialdiaren xede den urtean antolatutako prestakuntza ekintzan parte hartzen ari dela edo parte hartu duela adierazten duena.

d) Erantzukizunpeko adierazpena, II. eranskinean jasotako ereduaren arabera, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikulua arabera pertsona onuraduna izatea eragozten duten inguruabarretan ez dagoela adierazten duena.

e) Balioetsi litezkeen merituak egiaztatzen dituzten agirien kopia.

f) Lanbidek egindako ziurtagiria, izena emanda egon den aldiei buruzkoa eta, era berean, lan egoera adierazten duena.

Horregatik guztiagatik, eskatzen du beka eman diezaiotela, bat etorri 202.....(e)ko(a)ren (e)ko ALHAOn (..... zk.) argitaratutako oinarriekin.

Amurrio, 202.....(e)ko(a)ren(a).

I. eranskina. Prestakuntza bekaren eskaera – B mota

..... jaunak/andreak,
adinez nagusia eta(e)ko herritarra denak (helbidea:
posta kodea,kalea, zenbakia, solairua),
eta telefono zenbakia eta NAN zenbakia dituenak,

Adierazten du

Badakiela udal honek deialdia egin duela prestakuntza bekak emateko Amurrion bizi diren langabetuei, eta, oinarrietan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela iritzita, beka horiek esleitzeko hautaketa prozesuan parte hartu nahi duela. Horrenbestez, honako agiri hauek eranstean ditu:

a) NANaren fotokopia edo egiaztagiri baliokidea.

b) Gradua/goi mailako edo erdi mailako prestakuntza zikloa edo profesionaltasun ziurtagiria egin izanaren egiaztagiria.

c) Erantzukizunpeko adierazpena, II. eranskinean jasotako ereduaren arabera, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikulua arabera pertsona onuraduna izatea eragozten duten inguruabarretan ez dagoela adierazten duena.

d) Balioetsi litezkeen merituak egiaztatzen dituzten agirien kopia.

e) Lanbidek egindako ziurtagiria, izena emanda egon den aldiei buruzkoa eta, era berean, lan egoera adierazten duena.

f) Lan bizi-tza.

Horregatik guztiagatik, eskatzen du beka eman diezaiotela, bat etorri 202.....(e)ko(a)ren (e)ko ALHAOn (..... zk.) argitaratutako oinarriekin.

Amurrio, 202.....(e)ko(a)ren(a).

II. eranskina. Erantzukizunpeko adierazpena, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikulua arabera pertsona onuraduna izatea eragozten duten inguruabarretan ez dagoela adierazten duena

Nik, jaunak/andreak, adinez nagusia eta(e)ko herritarra naizenak (helbidea:posta kodea,kalea, zenbakia, solairua), eta telefono zenbakia eta NAN zenbakia dituenak.

Erantzukizunez adierazten dut ez nagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikulua arabera pertsona onuraduna izatea eragozten duten inguruabarretan.

Eta hala adierazten dut Amurrión bizi diren langabetu gazteentzako prestakuntza beken adjudikaziodunak hautatzeko espedientearen ondorioetarako, 202.....(e)ko (a)ren (e)ko ALHAOn (..... zk.) argitaratu denaren arabera.

Amurrio, 202.....(e)ko(a)ren(a).

SIN.